AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3724

739/2021 EBAZPENA, maiatzaren 26koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez M.ª Carmen Alonso Alonsori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Ospitalez Kanpoko Arreta Espezializatuko (Larzabal eta Pasaia) Gainbegirale lanpostuaren eginkizunen esleipena baliogabetzen den.

Otsailaren 20ko 157/2019 Ebazpearen bidez M.ª Carmen Alonso Alonso izendatu zen Ospitalez Kanpoko Arreta Espezializatuko (Larzabal eta Pasaia) Gainbegirale Osakidetzako Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Nagusi honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.ª Carmen Alonso Alonso Ospitalez Kanpoko Arreta Espezializatuko (Larzabal eta Pasaia) Gainbegirale lanpostuari dagozkion eginkizunak esleitu izana baliogabetzea, Osakidetzako Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2021eko maiatzaren 25etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko ESIko Langileen Zuzendaritzari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2021eko maiatzaren 26a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.